

EGONALDIAK FAMILIA EUSKALDUNETAN BOST URTETAKO BALANTZEA

Eusko Jauriaritzaren Kultura eta Turismo Saileko EUSKARAREN SUSTAPENERAKO ZUZENDARITZAK duela bost urte martxan jarritako plangintza honek helburu hikoitza izan du; batetik, euskaldungaiek hizkuntza mintzatuari dioten beldurra uxatzen laguntzea eta, bestetik, euskalkiren baten ezagupenak sakondu nahi izan duenari aukerak eskaintzea.

Helburua lortzeko erabateko giro euskaldunean euskara jorratu eta erabiltzea baino metodo hoberik ez dagoela eta, azken bost urteotan fruitu onak eman dituen plangintza honek behar-beharrezko izan du familia euskaldunen partaidetza, berauek bait dira plangintza honen ardatz eta protagonista nagusiak.

Aipatu protagonismoa kontutan harturik, geroz eta familia-kopuru handiagoa lortzera zuzendu izan ditugu gure ahaleginak. Hori dela eta, aitortu behar biziki estimagarria izan dela udalek eskaini izan diguten lankidetzat eta, bereziki, Euskara-Zerbitzuaz edo Euskara-Batzordeaz horniturik daudenena. Udalen lankidetzat gain, beste bitarteko batzuk ere erabili izan ditugu; prentsarako iragarkiak eta artikulutxoak prestatu, informazio-foiletoak zein horma-irudiak argitaratu eta banatu eta, azkenik, plangintza honetan parte hartzeko interesik izan dezaketen familiei informazio zuzena bidali.

Familiei dagokionez, 1990.eko ekitaldian izan ezik hiru hilabetetako iraupena izan duen urteroko plangintzan parte hartu ahal izateko bi baldintza baino ez dituzte bete behar izan:

- * % 50etatik gorako euskaldun populazioa duten herrietako batean bizi behar izatea.

- * Familiakide orok euskaraz egiten jakin behar izatea.

Aipatzekoa, berrikuntza gisa besterik ez bada ere, Iparraldeko hainbat familiaren 1990.eko partaidetza eta, ondorioz, ikasle zenbaiti eskaini ahal izan zitzaion lapurtera, baxenafarrera zein zuberera jorratzeko aukera ezin hobea.

Bestalde, murgiltze-plangintza honetan parte harturiko ikasleei hurrengo aukerak eskaini nahi izan zaizkie:

- * Ikastaroetan bereganatutako ezagutzak praktikara eramatea.
- * Euskara herrikoia eta bizi-bizia bertotik bertora ezagutzea.
- * Baserriko bizimoduaren berri zuzena jakitea.
- * Giza-harreman berriak izatea.

Ikasleak hautatzerakoan hiru erizpide hartu izan ditugu gidari:

- * Euskararen ezagutza-maila, gehien balioztatu izan dena.
- * Lan-egoera (plangintzan parte hartzearekiko merkeagotze-indizetzat erabilia izan dena).
- * Ikasketak eta bestelako merituak.


Erizpide hauetaz gain, eta gaur egungo gizarteak dituen premiei erantzun nahirik, Herri-Administrazioan zein irakaskuntzan aritzen direnei lehentasuna eman izan zaie.

Partaidetzari gagozkiolarik eta balantze bat egitean ohizkoa denez, egin dezagun informazio moduko taula bat eta, horrela,



ezagutu ditzagun azken bost urteotan plangintza honek eman dituen erresultadoak.

Urteak	FAMILIAK (Bizitokiak)							IKASLEAK (Norakoak)								Bete- tzeke plazak	Familiak jasotakoak	Erabilitako dirua	
	A	B	G	N	L	Z	NB	A	B	G	N	L	Z	NB					
1986	1	9	82	2	0	0	0	94	1	17	144	4	0	0	0	166	0	25.000	1.660.000
1987	0	5	59	2	0	0	0	66	0	10	107	4	0	0	0	121	10	35.000	2.690.000
1988	0	12	87	2	0	0	0	101	0	24	139	4	0	0	0	167	23	35.000	3.132.000
1989	2	8	86	9	0	0	0	105	3	12	147	19	0	0	0	181	16	45.000	5.807.000
1990	2	13	90	17	4	5	5	136	2	30	196	34	4	4	3	273	137	50.000	8.715.180
Guztira	5	47	404	32	4	5	5	502	6	93	733	65	4	4	3	908	186		22.004.180

A: ARABA G: GIPUZKOA L: LAPURDI
B: BIZKAIA N: NAFARROA Z: ZUBEROA NB: NAFARROA BEHEREA



FAMILIEK JASOTAKO DIRU-KOPURUAREN GARAP.



1987.ean ageri-ageria den beherakadak ez du, gure ustez, zerikusirik plangintzarekin berarekin, urte hartan kontutan hartu beharreko kanpoko faktoreekin baizik. Bi izan zitezkeen faktore distorsionatzaileak:

1.- Udal hauteskundeak: Udalek ezin izan omen zioten plangintza honi eskaini guk nahi beste dedikaziorik.

2.- Euskal Autonomi Elkarteko Aurrekontu Nagusien onarpenaren atzerapena: Delako atzerapenak plangintzarena ere ekarri zuen berarekin, plangintzatik kanpo uztaila geratu behar izan zelarik. Kontutan hartu behar da uztaila izaten dela ikaslegaiek gehien aukeraturiko hilabetea.

Bestalde, iazko ekitaldian betetzeko geratu zen ez-ohizko plaza-kopuruaren gorakadak ere badu bere lojika: plangintza urrira eta azarora zabaldu zenez, familia askok eman zuen izena jendea hartzeko baina ikasleengandikako erantzuna ez zen plazak betetzeko ainakoa, 1990-1991 ikasturteari hasiera emana zitzaiolako.

Datuok ikusitakoan, honela laburbildu dezakegu bost urteotako balantzea:

1.- Eskalduntzeari dagokionez, esperientzia erabat baikorra izan da.

2.- Euskaltegi publiko zein pribatuetan izandako matrikulakopuruak behera egin duen bitartean, plangintza honek izan duen gorakada nabarmena izan da.

3.- Familien artean, «euskarari laguntzea» izan da esperientzia honetan parte hartzera bultzatu dituen arrazoirik nagusiena eta ikasleen artean, berriz, «euskara jorratzea».

Bukatzeko, esan dezagun Iparraldeko lurraldeetako hainbat Kultur Elkarterekin izandako harremanak direla medio, balitekeela esperientzia iparralderaxeagotu ahal izatea. Hala bedi!

Vitoria-Gasteiz, 1991.eko urtarrilak 14

EUSKARAREN SUSTAPENERAKO ZUZENDARITZA